



## **2024KO RyC DEIALDIA**

### **JARRAIBIDEAK UPV/EHUKO IKERTALDEEK INTERES-ADIERAZPENAK AURKEZ DITZATEN**

Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen ministerioak (aurrerantzean MCI) argitara eman du laguntzen deialdia, I+G erakundeek jakintza arlo guztietako doktoreei 5 urtetako lan kontratuak egin diezazkieten, alegia "Ramón y Cajal azpiprograma" (aurrerantzean "RyC"). Deialdiaren oinarriak [hemen](#) ikus ditzakezu.

#### ***Deialdiari buruzko informazio orokorra***

"RyC" deialdiak eskatzen du bi tramite aldi berean egitea, baina beren artean independenteak direnak:

- Hautagaiek kontratua lortzeko eskariak aurkeztu behar dituzte. UPV/EHUK ez du prozedura honetan eskuhartzerik.
- UPV/EHUREN moduan, I+G erakundeek eskaria aurkeztu behar dute, eskaintzen dituzten plazen zerrendarekin batera.

Ikerketaren arloko errektoreordetzak (aurrerantzean IAE) eskaria aurkeztuko du, I+G erakundea den heinean, eskaintzen dituen plazak zerrendatuz. Eskaintza hori egiteko, ikertaldeek aurkeztutako ikerketa gaien proposamenak hartuko dira oinarri, aurrerago zehaztuko diren prozedura eta irizpideekin bat etorrita.

UPV/EHUK deialdian proposatuko dituen interes-adierazpen kopurua Eusko Jaurlaritzak baimendu behar du; izan ere, UPV/EHUK deialdian parte hartzeak berariaz baitakar ikertzaile doktore iraunkorraren plaza bat sortu eta, gerora, berori betetzeko deialdia egiteko konpromisoa, bana plaza gure unibertsitatean RyC gisako ikertzaile moduan kontratuko den pertsona bakoitzeko. Plaza horiek sortzeko, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzak jarritako finantzaketa.

IAEn jasotako ikerketa gaien proposamenak UPV/EHUREN Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) aztertuko ditu eta, horien guztien artean, Ikerketaren arloko errektoreordeak hala proposatuta, UPV/EHUK aurkeztuko dituen plazak hautatuko dira, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza sailak aldeztu aurretik baimendu dituela.

#### ***Interes adierazpenek bete beharreko baldintzak***

Interes adierazpenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Proposatzaileak 2025ean aktibo dagoen ikertalde bateko kideak izan beharko dira. Ikertalde aktiboak dira halakotzat aitortuak izan direnak Eusko Jaurlaritzaren deialdietan edo UPV/EHUREN deialdietan.
- Ikertalde bakoitzak, **gehienez, bi «interes adierazpen» proposatu ahalko ditu** deialdi honetan.
- Interes-adierazpen bakoitzean hautagai bakar baten proposamena besterik ezin izango da egin.
- RyC ikertzailea hartuko duen sail arduradunak ontzat jo beharko du, deialdiaren ebazpenean hautatua bada, sailean sartzeko arazorik egon ez dadin.



### **Interes adierazpenak hautatzeko irizpideak**

Baimendutako plaza kopurua bost arloen artean banatuko da, IGBBak ezarritako moduan. Interes-adierazpenak aukeratzeko irizpideak datozenak izango dira:

- Interes-adierazpenak zerrendatuko dira kontuan izanik IGBBak egindako proposamenen kalitate zientifikoaren ebaluazioaren arabera eta hautagaiaren CVaren arabera (curriculum vitae laburtu normalizatua).
- Hautagaia lehiakorra izatea.
- RyC gutxien edo duela denbora gehien izandako sailar bati dagokion interes-adierazpena izatea.

Egoera berean daudenen artean lehenetsiko da LCTI legearen 22. artikuluan araututako kontraturik izan ez duen hautagaia.

Ikertalde bakoitzeko hautagai bakarra lehenestuko da.

### **Ebazpen-proposamenaren ondoren hautagaiak hautatzeko irizpideak:**

Ebazpen-proposamena argitaratu ondoren, eta UPV/EHUn dauden plazak baino hautagai gehiago baldin badaude positiboki ebaluatuta, egoera aztertuko da, eta, ahal den neurrian, bikoiztasunak saihestuko dira sailetan, arlotan edo taldeetan.

### **"Interes adierazpenak" aurkezteko epea:**

Interes adierazpenak, hautagaien [CVA](#), eta LCTI legearen 22. artikulua araututako kontratutik izan duen ala ez adierazten duen dokumentua **2025eko urtarrilaren 13a, baino lehen** bidali behar dira Ikerketaren arloko Errektoreordetzara ([pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus) helbidera), mezuaren gaian "RyC 2024 deialdia" jarrita. Ez da dokumentazio gehiagorik bidali beharko barne postaz edo erregistroaren bidez.

IGBBk ezin izango du bermatu epe hori amaitu eta gero jasotako interes-adierazpenen ebaluaziorik

Barne-izapide honek ez du zerikusirik hautagaiak eskabideak aurkeztearekin. Beraz, hautagaiei gomendatzen zaie ez itxarotea IGBBren ebazpena jakinarazi arte eskaera aurkezteko.

### **Dokumentazioa:**

Fase honetan aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

- a) Interes-adierazpena, IAEren webgunean eskuragarri dagoen eredua erabiliz (Word eta PDF formatuetan).
- b) Hautagaiaren curriculum vitae laburtu normalizatua (PDF formatuan).
- c) Hautagaiaren ZTBL, 22.artikuluak araututako kontraturik izanaren ala ez izanaren adierazpena. (baiezkoa izatekotan, zenbat denbora izan duen adierazi beharko da).

Interes-adierazpenak hautagaiak, ikertzaile proposatzaileak, ikertaldearen arduradunak eta sailburuak sinatu behar dute. Ikertzaile proposatzaileak, ikertaldearen arduradunak eta sailburuak sinadura elektronikoa erabili behar dute.



### **Izapidetzea:**

Behin IGBBk ikerketa gaien proposamenen hautaketa onetsita, IAEk emaitza jakinaraziko die proposatzaileei posta elektronikoaren bidez.

Deialdiak aurrera egin ahala, bada fase bat non MCIk hautatutakoen zerrenda argitaratuko duen, hain zuzen ere, pertsona hauek RyC ikertzaile gisa jarduteko tokia hauta dezaten.

Fase honetan, hiru egoera ezberdin gerta daitezke:

1. MCIren ebazpenak positiboki ebaluatzen du IGBBk aukeratu eta deialdian aurkeztutako interes-adierazpena duen pertsona bat. Kasu horretan, UPV/EHU zuzenean jarriko da harremanetan hautagaiarekin, deialdian ezarritako lanean hasteko konpromisoa formalizatzeko.

2. MCIren ebazpenak positiboki ebaluatzen du IGBBk aukeratu ez zuen eta UPV/EHUk deialdian aurkeztu ez zuen pertsona bat. Kasu horretan, eta lanpostu hutsen bat egonez gero, UPV/EHU zuzenean jarriko da harremanetan pertsona horrekin, interesa berretsi dezan bere interes-adierazpena deialdiaren webgunera igo dadin. Izapide hori egin ondoren, interes-adierazpenarekin lotutako hautagaiak aukeratua ahal izango da, eta aurrera jarraitu ahal izango du deialdiak ezartzen duen UPV/EHUrekiko lotura-prozesuarekin eta lanean hasteko konpromisoa formalizatu.

3. MCIren ebazpenak positiboki ebaluatzen du interes-adierazpena IGBBtik igaro ez den baina UPV/EHUko ikertzaile batekin harremanetan jartzen den pertsona bat, erakundean sartu nahi duela adierazteko. UPV/EHUko ikertzailea Ikerketaren Arloko Errektoreordetzarekin harremanetan jarriko da lanpostu hutsen bat egon daitekeen jakiteko. Erantzuna baiezkoa bada, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak jarraitu beharreko prozeduraren eta egin beharreko izapideen berri emango dio interesdunari; besteak beste, deialdian hautatutako pertsonaren ezaugarri zientifikoetara egokitutako interes-adierazpena egingo du. Jasotako interes-adierazpenak ebaluatu ondoren, IGBBk eskuragarri dauden lanpostu hutsak betetzeko eskaera berriak lehenetsiko ditu.

Aukeratutako interes-adierazpenak deialdiaren web gunera igo ondoren, horiei lotutako pertsonak aukeratu eta prozesuarekin aurrera jarraitu ahal izango dute.

MCI-ren ebazpenean hautatutako pertsonen kontratazioa honako lehentasun honi jarraituko zaio hurrenez hurren: lehenengo, 1 egoeran dauden pertsonak; gero, 2 egoeran daudenak eta, azkenik, 3 egoeran daudenak.

### **UPV/EHUko kontaktua:**

Erabiltzailea eroso egon dadin eta zerbitzu hobea eskaintzearren, gomendagarria da kontsultak ("RyC 2024 deialdia" aipatuz posta elektronikoaz igortzea [pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus) helbide elektronikora eta ahal denik eta lasterren erantzungo dira.